

Hernaniko Kronika

2008ko maiatzaren 21a, asteazkena ::: 2.562 zka. ::: www.kronika.net



❖ MUSIKA ESKOLA Instrumentuak aukeratzeko emanaldia

Musika instrumentuak aukeratzeko emanaldia izango da gaur, Hernaniko Musika Eskola Publikoak antolatuta. Gaur, arratsaldeko 17:00etan, Biterin. ||

❖ BERTINTASUNA Berdintasun Kontseilua gaur

Udaleko Berdintasun Sailak Berdintasun Kontseilua deitu du gaurko. Jabetze eskolen balorazioa eta hurrengo urteko egitasmoak izango dira bileran hitz egingo diren gaiak. Berdintasun Kontseilua hilero egiten da, hila-beteko hirugarren asteazkenean. 20:00etan, Biterin. ||

❖ UDALA

Hirigintza batzordea gaur

Hirigintza batzordea izango da gaur. Besteak beste Elizatxon etxeak eta garajeak egiteko enpresa batek egin duen eskaera aztertuko dute; Buruntzaldeko airearen kalitatea azterketa neurtzeko lankidetzat hitzarmenez ere hitz egingo dute; baita Santa Barbarako harrobia txukuntzeko lanak adjudikatzeaz ere. Gaur arratsaldeko 18:00etan. ||

Ogasun batzordea

Ogasun batzordea ere izango da gaur udaletxean. Udal tasetaz hitz egingo dute besteak beste. Hainbat aldaketa proposatu dira haur eskolako jangelako, hilerriko eta hirigintza lizentzien inguruko tasetan. Gaur eguerdiko 12:00etan. ||

❖ GAZTE TXOKOA

Larruzko karterak

Larruzko karterak egingo dituzte gaur eta bihar Gazte Txokoan. ||

«Nomadak TX ulertzeko ez da txalaparta ezagutu behar. Hori da komunikazioa»

Harkaitz Martinez de San Vicente Hernaniko Musika Eskolan ikasi zuen txalaparta jotzen. Geroztik Oreka TX taldea sortu zuen Igor Otxoarekin batera eta orain munduan barrena dabilta, nomada, txalapartarekin. Gaur Nomadak TX pelikula emango dute eta inguruko azalpenak ondoren. Biteri kultur etxean, 19:30etan.



Galdera asko espero dituzte gaurko hitzaldian.

Gaur Nomadak TX pelikula emango duzue Biterin. Ezer berezirik egingo al duzue?

Kontua da Txalaparta Festaren barruko emanaldia dela. Antolatzaileek eskatu ziguten pelikula ematea, baina zerbait gehiago ere egingo dugu. Pelikula hasi aurretik aurkeztu egingo dugu, ondoren pelikula ikusi eta ondoren azalpenak emango ditugu. Hitzaldia irekia da eta galdera asko espero ditugu.

Makina bat aldiz parte hartuko zenuten Txalaparta Festan, ezta? Bai. Azken urteetan gutxiago.

Txalaparta eskolan hasi nintzenez bai. Orain kolaborazioak egiten ditugu. Orain dela lau urte edo, *Quercus Endorphina* diskoa aurkezten izan ginen.

Hernani eta txalapartaz ari gara, zuk hemengo eskolan ikasi zenuen txalaparta jotzen, ezta?

Bai, Añorgakoa naiz baina Hernaniko Eskolan ikasi nuen txalaparta jotzen, Juan Mari Beltranekin.

Nomadak TX proiektuak arrakasta handia izan du?

Bai, pelikularekin adibidez, pentsatzen genuen Zinemaldian aurkeztu eta hor bukatuko zela, eta orduz geroztik, gelditu ere ez gara egin; urte

«Hego Afrikan, Mexikon, Estatu Batuetan sei aldiz, European barrena ere ibili gara»

eta erdi pasa dugu bidaiatzen.

Espero al zenuten horrelako arrakastarik?

Espero ez dakit, baina ez genuen imajinatzen. Ondoren deskubritu dugu; zine munduko jende asko ezagutu dugu eta guri ate asko ireki zaizkigu, munduko jaialdi askotan izan gara...

Eta hemen arrakastarik izan al duzue?

Bai, hemen ere arrakasta handia izan dugu, beti ere kontuan izanda kontestua. Orain Berria egunkariarekin banatuko dute. Atenporala

► Sari batzuk

Jaialdiaren historiako 2garren dokumentalik onena.

Amsterdameko Dokumental Zinema Jaialdi Internazionala. 2007ko azaroa.

Musika Dokumental Onenearen

Saria. Washington-eko Silverdocs-eko Jaialdia. 2007ko ekaina.

Dokumental Onenari Saria.

Belfast-eko Zinema Jaialdia. 2007ko apirila.

Epaimahaiaren Aipamen Berezia.

Mexiko. 2007ko urria.

Azterriko Dokumental Onenari

Saria. Erdialdeko Amerikako Zinema eta Bideo Jaialdia. 2008ko urtarrila.

Ikuslegoaren Saria. Moffom- Music

on Film Jaialdia. Txekiar Errepublika. 2007ko urria.

Epaimahaiaren Sari Berezia.

Durban Nazioarteko Zinema Jaialdia. Hego Afrika. 2007ko uztaia.

bihurtu da.

Non barrena ibili zarete sariak jasotzen?

Kanpoan asko. Hego Afrikan, Mexikon, Amerikako Estatu Batuetan sei aldiz izan gara, European barrena ere ibili gara... Horrek harritzen gaitu. Pentsatzen dugu pelikula ulertzeko txalaparta ezagutu behar dela eta ez da horrela. Hori da musikaren komunikazioa.

Nomadak TX-i buruz hitz egiten duzuenean proiektu zabalago bat aipatzen duzue. Zein da proiektu hori?

Ez da bakarrik musika... Lau urte dira proiektu honekin hasi ginela, grabaketak, pelikula, diskoa, kontzertuak...

Eta orain zertan zabilzate?

Orain musika kalera atera nahi dugu. Horretarako bi ikuskizun prestatu ditugu. Batetik, banda batekin, sei lagunekin, zuzeneko emanaldiak; eta bestetik, karpa ibiltari bat; Bergaran aurkeztuko dugu, ekainaren 6an, Mundumira jaialdian. ||

TXALAPARTA FESTAKO EGITARAUA:

Maiatzak 21, asteazkena

-19:30etan: **Nomadak Tx** pelikula Oreka TX-eko kideen eskutik. Biteri kultur etxean.

Maiatzak 23, ostirala

-19:30etan: **Sestaoko TX Eskola** taldearen txalaparta emanaldi berezia: **Hiru ipuin, liburu bakarra.**

-00:00etan: **Txalaparta Party Aparta.** Atxur tabernan.

Maiatzak 24, larunbata

-18:00etatik aurrera: **Txalaparta Erromeria.**

Txalaparta saio libreak, sagardo banaketa, Hernani Musika Eskolako Alboka, Dultzaina, Trikitixa eta Txistu taldeen kale bueltak.

-21:00etan: **Herri afaria.**

-Ondoren: **Txalaparta Jaialdi Nagusia.** Bertsolariak eta Euskal Herri osoko txalapartariak.

Argitarapen honen laguntzaile



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Hernaniko kronikako
laguntzaile:



ORAIUNE
PROMOZIOAK

EDARITEGIA
JOMARI

Kale Nagusia, 7
☎ 55 00 32

HERNANI

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 ● Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
● FARMAZIAK ● Egumez: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● Gauez: **Correa** Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA
GAUR Tenperaturak gora egingo du eta giro eguzkitsua izango da, batez ere goizean. Tenperaturek gora egingo dute, 22 °C ra iritsi arte. Arratsaldean lainoak agertuko dira.
BIHAR Ostegun goizean lainoak ugari egingo dira, eta euri arina egingo du. Arratsaldean atertzeke joera hartuko du. Tenperaturek behera egingo dute. (euskaime)

Gizarte parte hartzeari buruzko ikastaroa datorren astean, Baketik elkarteak antolatuta

Maiatzaren 27, 28 eta 29an izango da ikastaroa, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara. Izena emateko: 943 25 10 05.

BAKETIK elkarteak antolatuta gizarte parte hartzeari buruzko ikastaroa izango da datorren astean, maiatzaren 27, 28 eta 29an. Egitasmoa Gipuzkoako Foru Aldundiarena da, eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du.

Ikastaroa arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara izango da, Biteri kultur etxean. Jakinarazi dutenez izena emateko aukera badago oraindik eta horretarako telefono honetara deitu daiteke: 943 25 10 05.

Baketik elkartetik azaldu dutenez, «Gipuzkoako Foru Aldundiak aurtengo legealdian parte hartzearen inguruko ahalegin berezia egin nahi du, politika kultura berri bat bultzatuta. Besteak beste, ikastarok antolatzen ari da leku bate-

Gipuzkoako Foru Aldundiak aurtengo legealdian parte hartzearen inguruko ahalegin berezia egin nahi du, politika kultura berri bat bultzatuta.

an eta bestean, eta helburua da gizarte eta instituzioen artean dagoen distantzia txikitzea, demokrazian sakonduta».

Teoria eta praktika

Teoria eta praktika landuko dira ikastaro honetan. Aurreneko egunean gizarte parte hartzearen teoria landuko dute: parte hartzea zer den, nola parte hartu daitekeen

eta zergatik hartu behar den parte.

Bigarren egunean, Euskal Herri mailan ematen den parte hartzearen argazki edo diagnosi txiki bat egingo dute, orokorra. Horrekin batera parte hartzean aditua den pertsona batek adibide batzuetan sakonduko du: berak gizarte parte hartze prozesu horietan izan duen esperientzia azalduko du.

Hirugarren egunean, tailer bat egingo dute. Parte hartzea gatazkari lotuta dagoela azalduko dute. Eztabaida batean pentsamendu ezberdinak daudenean modu positiboan aurrera egiten irakatsiko dute, eztabaidan blokeatu gabe. Hainbat metodologia ere plantetuko dituzte. ||

Astigarragako gazte olinpiaden bukaerako jaialdian izango da Hernaniko Gazte Asanblada

ASTIGARRAGAKO Gazte Asanbladak gazte olinpiadak antolatu ditu, aurten bigarren aldiz. Herriko koadrila ezberdinak olinpiadetak frogetan aritu dira parte hartzen martxotik maiatza bitartean eta orain bukaera eman nahi diote olinpiadei, larunbatean Astigarragan

egingo duten jaialdiarekin.

Hernaniko Gazte Asanblada bertan izango da. Idea da 11:00etan hasita, herri arteko herri kirol txapelketa egitea eta hori dela eta Gazte Asanbladak Hernaniko gazteak animatu nahi ditu parte hartzera. Jakinarazi dutenez, arratsalde partean Kontra-

kantxa gaztetxera gerturatu behar da eta izena eman.

Herri kirolez gain triki poteoa, herri bazkaria, kantu saioa, *The Txortains* taldearekin poteoa eta kontzertuak izango dira debalde, gaueko 21:00etan hasita: *Bisai*, *Sagarroi*, *Etsaiak* eta *Trikizio* taldeekin. ||

Jasota Bezala

• Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefona • Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira • Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu • Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Zorionak!

Lerro hauen bitartez zorionak eman nahi dizkizuet 2008ko udal aurrekontua aurrera ateratzeko adostasun batera iritsi zareten EAE/ANV eta EBko alderdikideei. Zoriondu nahi zaituztet, bai bata eta bai besteak herriaren nahia zein izan den ondo ulertu duzuelako. Hernanik egonkortasuna merezi du eta udaleko aurrekontuak onartuak izatea garrantzitsua da. Azken udal hauteskundeon emaitzek garbi adierazi zuten gehiengoak zer nahi zuen: batetik, EAE-ANV ia

botoen %50 lortu zituen eta bestetik EB/Aralarrek %10 inguru. Nabarmen zigortuak atera ziren EA eta EAJ dira, bien artean botoen %20 osatzen baitute eta 1.000 boto galdu zituzten aurreko udal hauteskundeon emaitzekin konparatuz. Beraz, orain gobernatzeko ardura du EAE-ANV eta gainontzeko alderdiek beraien ondorioak atera behar dituzte. Nire iritziz, PSE-EE, EAJ eta EA alderdietako ardura-dunek akats nabarmenak dituzte eta beraien artean txarrena «politikari profesio-

nal» izateko joera da (batzuk 20 urtetik gora daramatzate politikaren kontura bizitzen, beste inon ez dute lanik egin). Berdin da hernaniarren borondatea zein den; beraiek politikatik bizi behar dute nahi eta nahi ez; berdin da Hernanin bizi edo ez; berdin da euskara jakin edo ez; berdin da herritarrengatik gertu izan edo ez; hauek poterea nahi dute kosta ahala kosta. Bukatzeko, udal gobernuan zaudeteno, animo eta eutsi goiari!

Xabier Otaegi.

ANTZIOLA

Sagardo Eguna larunbatean

Antzolian Sagardo Eguna antolatu du auzo elkarteak, larunbaterako. Hernaniko sagardotegi guztietako sagardoak dastatzeko aukera izango da basoa erositako. Pintxoak ere izango dira tripa hutsik ez edateko. Larunbatean goizeko 11:30etatik aurrera. ||

ERREMONTA

Thermotechnic erremonte txapelketa hasiko da larunbatean Galarretan

Thermotechnic erremonte jaialdia hasiko da larunbatean Galarretan. Thermotechnic txapelketak iaz izan zuen aurreneko edizioa eta izandako arrakasta ikusita aurten ere antzeko txapelketa planteatu dute, aldaketa txiki batzuekin. Alde batetik koadroko bi aurrelari onenek elkarrekin jokatu dute Ezkurra eta Zeberio IIak, eta beste alde batetik, koadroko bi atzelari onenek osatu dute beste bikote bat, Lizaso eta Urrutiak. Ezkurra eta Zeberioekin batean A taldean izango dira: Altuna II-Etxabe eta Urriza-Iriarte. B taldean, Urruti-Lizasoekin batean ariko dira Juaristi-San Miguel eta Uterga-Etxeberria III. Talde bakoitzean liga bat jokatu da eta talde bakoitzeko aurreneko bi bikoteek semifinalak jokatu dituzte. Aurreneko partidua larunbatean jokatu da Galarretan, Ezkurra-Zeberio II eta Altuna II-Etxaberen kontra. Semifinal eta finalak ere Galarretan jokatuko dira, ekainaren 15 eta 21ean. ||

MUS TXAPELKETA

Gaurko partidak

Mus txapelketa ezberdinak jokatu dira gaur herrian. **Aralar tabernan** honako partidak jokatu dira: Josu-Gorka/Odei-Oier; Javi-Bibi/Iñaki-Antxon; Esteban-Pablo/Manu-Joxe Leon; eta Rafa-Kaki/Andoni-Juanma. **Xalaparta elkarte**an beste partida hauek jokatu dira: Justo-Javi/Iñaki-Martin; Txema-Goyo/Isidro-Montoya; Jesus-Gorrotza/Martin-Gofi; eta Isidro Gil-Urtzi/Salaberria-Dani. ||

XALAPARTA ELKARTEA

Ekainaren 14an urteurreneko afaria

Xalaparta elkarteak urteurreneko bazkaria antolatu du ekainaren 14rako, 26garrena. Entremesak, legatza txirlekin, solomilloa pikillo piperrekin, tarta, ardoa, kafea, patarra eta purua izango da menua, 30 euroren truke. Bazkalostean 25garren mus txapelketa sari banaketa egingo dute. Izena emateko azkeneko eguna ekainaren 8a izango da. ||

IRAGARKI MERKEAK

Baseria hartuko genuke errentan, bi lagunek. Deitu: 656 703 814

Sukalderako laguntzaile behar dugu Igeldoko sagardotegi batean lan egiteko, asteburuetan. Interesatuak deitu: 635 746 559

Pixua salgai Floridan (La Cumbren), 60 m2 ditu, 2 logela, egongela, sukalde, komuna, 60 m2ko garbata eta trasteroa. Deitu: 627 501 957

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P-1 B).

Yolanda estetika zentrua. Argi zapaldu bidezko depilazioa (azken berrikuntza), mantxa eta *Kuperros*. Haserako eskaintza. Froga dohainik. **Atzietan 2, behean**. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2)**. 943 55 76 76

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, gorputz eta aurpegi tratamenduak, oinen eta eskuen estetika. Eskatu ezazu programa informatiboa. **Antziola 39 (Mendi mendian, 2)**. 943 55 76 76

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)